

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Diputatu nagusiaren 207/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, mahastien aseguruak kontratatzeko laguntzen 2017ko deialdia eta kreditu erreserba onartzen dituen

Uztailaren 6ko 35/2010 Foru Dekretuaren bidez (azaroaren 15eko 69/2011 Foru Dekretuaren eta ekainaren 17ko 32/2014 Foru Dekretuaren bidez aldatua), onartu egin ziren nekazaritzako aseguruak kontratatzeko laguntzak emateko oinarriak, eta erabaki zen mahastien aseguruari (ardogintzako mahatsaren ustiapenaren aseguruua, eta ardogintzako mahatsaren aseguru konbinatua eta ezohiko kalteen aseguruua) dagokien aseguru lerroa, besteak beste, diruz laguntzea.

Laguntza horiek izapidetzeko prozeduraren barruan, aipatutako dekretuaren 8. artikulua xedatzen du urtero deialdi bat onartuko dela. Deialdian, laguntza lerro bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea adieraziko da, eta laguntzak emateko erabiliko diren kredituak zehaztuko dira.

Mahastien aseguruak kontratatzeko laguntzen 2017ko deialdia onartu behar da, eta horri aurre egiteko behar besteko kreditua gorde.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea mahastien aseguruak kontratatzeko laguntzen 2017ko deialdia. Hona hemen xehetasunak:

– Deialdi honen xedea da laguntzak ematea mahastizainei, 2017an indarrean den Aseguru Konbinatuen Plan Nazionalako aseguruak izenpetzeko Arabako Lurralde Historikoan dauden mahastizaintza lurzatiatarako.

– Diruz lagun daitezkeen aseguru motak: Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Plan Nazionalan, zeina 2015ean indarrean egonik Araban ardogintzako mahatsari aplikatzekoa zaion, jasoriko aseguru lerro eta moduluen baitan dagoen edozein.

– Eskaerak aurkezteko epea: 2017ko ekainaren 1etik 30era, biak barne.

– Kreditu erreserba: 125.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2017ko gastuen aurrekontuaren "Mahastien aseguruak kontratatzea sustatzea" izeneko 40.1.04.42.02.479.00.02 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 17.1.17.105.2190/000).

– Dirulaguntzen zenbatekoa: gehienez ere, 125.000,00 euro emango dira dirulaguntzetan deialdi honen baitan, eta dagokionean xedatu eta ordainduko zaie diru kopuru hori deialdiaren oinarri arautzaileek eskatutako betekizunak betetzen dituzten laguntza eskatzaileei.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE